



Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 10ekoa. Horren bidez, Arraia-Maeztuko Udalari gomendatzen zaio ofizios itzul dezala Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzari dagokion espedientea idatzi eta izapidetzeko ordaindu zen konturako zenbatekoa.

Aurrekariak

1. (...) eta (...) Arartekoari zuzendu zitzaizkion, Arraia-Maeztuko Udalak ez ziolako erantzun Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa zehatza izapidetu zezan eman zen konturako zenbatekoari buruzko gastuak likidatzeko egin zuten eskaerari.

Kexan zioten, zehazki, 2006ko urtarrilean 1.400 euroko zenbatekoa eman ziotela Udalari, eskatzen zuten udal plangintzaren aldaketa zehatza izapidetzerakoan sor zitezkeen zerbitzu sari profesionalak, argitalpenak eta gainerako gastuak ordaintzeko funtsak birjartze aldera.

Horren guztiaren aurretik, interesdunek eskaera aurkeztu zuten eta bertan adierazi zuten, Apellanizen kokatuta zegoen eta bi urte baino gehiago lurpeko saneamendu, ur, argi eta telefono hargunerik gabe zeramatzan finka baten jabeak izaki, ea hori hirikotzat har zitekeen.

2004ko urriaren 5eko Osokoaren erabakiaren bidez, interesdunei jakinarazi zitzairen, txosten teknikoaren arabera, hiri lurzorura aldatzeko irtenbidea lursailak hiri bilbean barneratzea litzatekeela, 26. poligonoko beste sei lursailekin batera lurzoru urbanizagarriko sektore berri bat sortuta. Halaber adierazi zitzairen Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea has zezaketela eta Udalari aurkez ziezaioketela, izapidetu zezan, nahiz eta ez zitzairen ziurtatu aurrera egingo zuenik, horren behin betiko onarpena Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren eskumena baitzen.

Ondoren, funts hornidura eman zenetik 9 hilabete igarota, Udaleko teknikariarekin bilera egiteko dei egin zitzairen eta, bertan, zona eta udalerrri horretarako desegokitza jo zuten antolamendua proposatu zitzairen. Hori dela eta, 2006ko azaroaren 13an, sor izan zitezkeen gastuen likidazioa eta, bidezkoa bazen, zegokion ordainketa egiteko eskatu zuten. Bitan joan ziren udaletxera likidazioari buruzko informazioa eskatzeko, baina, ordura arte, gestio horrek ez zuen emaitzarik izan.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, lehenengo balorazioa egin genuen. Laburbilduz, adierazi genuen Arraia-Maeztuko Udalak ez duela inolako ahalmenik plangintza orokorreko tresnak idatzi eta izapidetzeagatiko tasak ezartzeko, hirigintzako





jarduerak funtsean interes publikokoak baitira. Hala, beraz, horiek ezin dira interes partikulartzat hartu, zerbitzuak emateagatiko tasekin gertatzen ez den bezala.

Horren haritik, iruditu zitzaigun erreklamatazaileen eskaera ezin zitekeela horrela baloratu, alegia, eragindako gastuen likidazioa egin eta aldea itzul zekiela kontuan hartuta, Udalak ofizioz itzuli behar baitzukeen kontura ordaindutako guztia, likidazioa ez baitzen bidezkoa.

Planteamendu hori ikusita, adierazitako gogoetei buruzko informazio egokia eta iritzia eskatu zizkion Arartekoak Udalari, kexa behar bezala izapidetzeko xedez.

- 3 Erantzunean, Udalak adierazi zuen partikularren eskaerei erantzuterakoan une oro fede onez jokatu zuela, Arau Subsidiarioak aldatzeko espedienteak izapidetzea Udalaren eginkizuna baita, hala egoki iritziz gero, baina beharrezko dokumentazioa aurkeztea eskatzaileei dagokiela, ez baita plangintzaren berrikuspen orokorra. Ondoren, idazkiak honela dio:

*“... Udalak hala eskatu duten partikularren interes propioagatik izapidetu du espedientea; horiek **beren borondatez onartu dute zerbitzu sarien gastuak beren kontura ordaintzea**. Izan ere, arauetan egin nahi den aldaketak, noski, ez die **interes orokor eta publikoko irizpideei men egiten, ikus daitekeen bezala.**”*

Udalak adierazitakoaren arabera, gutxi gorabehera data horietan birkalifikatzeko helburu bera zuten beste hamasei eskaera aurkeztu zirenez, 2005eko urriaren 28an osoko bilkuran erabaki zuen, lurak birkalifikatzeko eskatu zuten pertsonen batera aldatzeko espedientea izapidetzen jarraitzearekin ados zeudela esan ondoren, eskaintzak egiteko eskatuko zela, beharrezko proiektu eta txostenak idatzi eta prestatzeagatiko zerbitzu sari profesionalen kostua jakiteko.

Funts hornikuntza egiteko bidali zitzairen idazkiari jarraiki, ordainketa ezarritako epeen barruan egin ezean, interesdunak saiakeran atzera egin zuela eta espedientea izapidetzen jarraitu nahi ez zuela ulertuko omen zen. Gainera, ohartarazi zitzairen ondoren ezin izango zutela kontura emandako zenbatekoak itzultzeko eskatu edo exijitu beren eskaera onartuko ez balitz, arrazoiak edozein izanda ere, eta lursaila Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen behin betiko onarpenean kanpo geratuko balitz.

Bestalde, ebazpen honen ondorioetarako ere kontuan izan behar da, 2006ko urriaren 3ko osoko bilkuran, ondokoa jakinarazi zela, alegia, arrazoi pertsonalak zirela medio, aipatu plangintzaren aldaketa idazteaz arduratuko zen arkitektoak espedientearekin ez jarraitzeko nahia adierazi zuela. Ondoren (hau da, 2006ko azaroaren 14a baino beranduago, data horretan erreklamatazaileek eta birkalifikazioa eskatu zuten beste batzuek gastuei uko egin eta likidazioa egiteko eskatu zuten), lan horiek beste arkitekto batek hartu zituen bere gain, Arraia-Maeztuko Udaleko hirigintzako teknikariekin elkarlanean, nahiz eta ez dakigun zein unetan egin zen lanen adjudikazioa edo zein den bi aldeen artean ezarritako zerbitzu harremana.





Aurreko ataletan laburbildu dugun informazioa eman ondoren, Udalak esan zigun ez zuela beste ezer esateko erreklamatzailleek aurkeztu zuten zerbitzu sariak likidatzeko eskaerari buruz.

4. Azkenik, nabarmendu behar da Udaleko Arau Subsidiarioen seigarren aldaketaren hasierako onarpenak, 2007ko abenduaren osoko bilkuran onartuak, hainbat gai dituela helburu gisa. Horrela, adibidez: eraikigarritasuna handitzea dakarten birgaitze jardueri buruzko zehaztapenak; alde zaharretan lehendik zeuden lursailen gaineko mugak ezabatzea; hainbat poligonoren birkalifikazioak; lursailen erabilera aldaketak; azpipartzela bat hiri lurzoru industrial gisa sailkatzea; lursailak egikaritze unitate batean barneratzea; lursailak hiri lurzorian barneratzea; etab.

Erreklamazio hau ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, plangintza orokorrak eta, hala badagokio, horren aldaketa zehatza egiteko espedienteek duten izaera aztertu behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak –LHL– hirigintzaren eginkizuna eta hirigintzako jardueran esku hartzean errespetatu beharreko irizpide orokorrak definitzen ditu eta nabarmentzen du hirigintza funtzio publikoa dela eta natur baliabideak modu arrazionalen eta iraunkorren erabiltzen direla ziurtatu behar duela.

Horrela, interes publikoaren mende egotearen printzipioaren arabera –Legearen 4. artikulua–, interes publikoak bakarrik egiten du zilegi hirigintzako plangintzak lurzoruaren erabilera antolatzea. Gainera, artikuluko horretako 4. atalak dio ondarezko eskubide eta interes legitimoak asetzeak berez ezin baldintzatu edo muga dezakeela hirigintzako antolamenduaren arloko administrazio ahalez baliatzea.

Arazko testuinguru horretan, esan behar dugu interes publikoak bakarrik bidera dezakeela plangintza orokorra egitera bideratutako udal jarduera; Arauen berrikuspen osoa edo aldaketa zehatza izateak ez du udal administrazioaren nahitaezko jardunak izan behar duen izaera aldatuko.

Horri dagokionez, LHLk ez du inolako bereizketarik egiten plan orokorraren berrikuspenaren edo aldaketen artean. Bi dokumentu horiek, beraz, plan mota beraren bidez izapidetuko dira eta aipatu zehaztapenak onartzeko bideratutako prozedura berari jarraituko zaio, 104. artikulua biltzen duen arau orokorraren salbuespenen kaltetan izan gabe. Horren ildotik, LHLren 90.1 artikulua dio plan orokorra egitea (eta, beraz, baita horren aldaketak ere) Udalarri dagokiola; alabaina, hirigintzako beste dokumentu batzuen kasuan (plan partzialak), berariaz aipatzen





da beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere prestatu ahal izango dituztela. Laburbilduz, Legeak ez du esaten derrigorrezkoa denik plangintza orokorra aldatzeko agiria hala eskatzen duten edo plangintzaz arduratzen diren partikularrek idatzi behar dutenik; alderantziz, ekimena publikoa dela uste du.

Horrez guztiaz gain, izapidetze bidean diren Arau Subsidiarioen seigarren aldaketaren eduki materialari jaramon eginez gero, laugarren aurrekarian adierazi dugunaren arabera, bertan jasotako zehaztapenek oso eragin eta izaera ezberdina dute; hala, aldaketak soil-soilik interes partikularrei men egiten diela pentsatuta ere, nekez ezarri ahal izango litzateke aldaketak eragindako subjektuetako bakoitzak izan dezakeen onuraren banakapena.

Horrela, adibide bat jartzearren, alde zaharretan lehendik zeuden lursailetan gutxienerako lursail eraikigarriek gehienez 300 m² izan ditzaketela ezabatzea antza ezin zaio neurria eskatu duen partikularrari bakarrik egotzi; horrek, gainera, azalera hori baino gutxiagoko lursailak dituzten guztiei dakarkie onura. Bestalde, ezin uler daiteke aurreko adibidean ezarritakoaren moduko neurri bat nola hazta daitekeen lurzoru urbanizaezina lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta, kostuak plangintzaren aldaketa eskatu izan dezaketen pertsonetako bakoitzak lor dezakeen onura partikularren arabera banakatu eta banatzearen ondorioetarako.

2. Bigarren, aipatu beharrekoa da ea zenbateraino hartu dituzten interesdunek beren borondatez aipatu espedientea izapidetzearen ondoriozko gastu guztiak ordaintzeko ardura.

Pertsona horrek jakinarazpena jaso zuen eta horren bidez adierazi zitzaion, Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea hasita, "haren nahia betez", Arraia-Maeztuko Udalak beharrezkotzat jo zuela **aldaketa horretan interesdunei** "konturako ekarpena" edo "funtsen birjarpena" egiteko **eskatzea**. Hortaz, 1.400 euro ordaindu behar zituen, hala egin ezean, saiakeran atzera egiten zuela eta espedientea izapidetzen jarraitu nahi ez zuela ulertuko baitzen. Laburbilduz, jardun horretan aipatzen den borondatea erlatiboa da, jasotako jakinarazpenean esandakoaren arabera.

Nolanahi ere, Udalaren arrazoibideak, alegia, partikularrek beren borondatez onartu zituztela ezarritako baldintzak eta, beraz, horrek hirigintzako agiria idaztea eta hori kudeatzeko gainerako izapideak egitea kontratatzetik sortzen ziren gastuak beren gain hartzea behartzen zituela, zuten interesagatik, ez dator bat, ezta ere, ondorengo udal jardunekin. Dioen bezala, prozedura partikularren interesagatik bakarrik izapidetzen ari bazen, ez zuen inolako zentzurik Udalak, lanak egiteaz arduratuko zen arkitektoak uko egin ondoren (garai berean, interesdunak eta beste batzuek agiria izapidetzen jarraitzeari uko egin zioten), lanak hirugarren bati adjudikatu eta prozedura bideratzen jarraitzeak, ordura arte sortu izan zitezkeen gastuen likidazioarekin kaltetan izan gabe.





3. Hirugarren, interesdunei bidalitako likidaziorako lege estaldura aztertu behar da. Arabaren kasuan, Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 19ko 41/89 Foru Arauak toki erakundeen baliabideak arautzen ditu -2. artikulua-. Bidalitako likidazioa ez da zerrendatutako zuzenbide publikoko baliabideetakoren batean ere barneratzen, zerbitzu bat emateagatik edo jardueraren bat egiteagatik ordaindu beharreko tasa gisa hartzen ez bada behintzat.

Aipatu foru arauaren 20. artikulua dio, dagokion zerga ordenantza ezarri eta onartzeko erabakia hartu ondoren, udalek tasak ezarri ahal izango dituztela toki jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamenduagatik, zerbitzu publikoak emateagatik edo bereziki subjektu pasiboak dagozkien, eragiten dieten edo mesede egiten dieten toki eskumeneko administrazio jarduerak burutzeagatik.

Definizio hori ikusita, esan genezake igorritako likidazioa udal jardueratzat hartu behar litzatekeela eta hori bereziki interesdunarentzat dela onuragarria, plangintza orokorraren agiria aldatuta lursaila berriro sailkatzeko bere asmoa gauzatzeko bilerak. Hala ere, gogoeta hauen lehenengo atalean esan dugun moduan, zaila da interesdunak lortu beharreko onura banakatzeko, eta hori ezinbesteko premisa da tasaren egitate zergapegarria zehazteko.

Horren haritik, finkatutako jurisprudenzia adierazi du ezinezkoa dela hirigintzako zerbitzuengatik tasak ezartzea. Horrela, berriki eman diren bat aipatzearren, Auzitegi Gorenaren 2008ko urtarrilaren 3ko epaiak (Id Cendoj: 28079130022008100138), Madrilgo Udaleko hirigintzako zerbitzuengatik tasari buruzko zerga ordenantzaren legezkotasuna auzipetu zuenak eta aurrekoen berri eman zuenak, honakoa jaso du:

“... Horren haritik egin du behin eta berriro doktrina jurisprudenzialak. Doktrina hori, besteak beste, Salaren ondorengo epai hauetan bildu da: 1983ko urriaren 13koa, 1991ko apirilaren 15koa, 1992ko martxoaren 17koa eta abenduaren 22koa, 1993ko martxoaren 22koa, 1996ko apirilaren 30koa eta 1997ko otsailaren 3koa. Epai horietan, beste zenbait alderdiren artean, honakoa adierazi da: a) «Doktrinak oro har onartzen du eta jurisprudenzia behin eta berri nabarmentzen du plan partzialek eta hirigintzako plangintzako tresna guztiek arau izaera dutela, eta, beraz, horiek egitea inola ere ezin egin daitekeela bateragarri tasetan ezinbestekoa den onura edo eragin partikularraren ideiarekin -autoen kasuan, dokumentuak egiteagatik-». b) Hirigintzako plangintza lurraldearen interes orokorrak aintzat hartzeko beharri erantzuten dion administrazio ahala da; ikuspegi fiskaletik -kasu honetan, agiri edo tresna horiek eman, idatzi edo izapidetzeagatik tasaren ondorioetarako-, jardunek eragindako lurren jabeen interes zehatzak gaintzen ditu horrek»...”

Laburbilduz, jurisprudenzia dio hirigintzako agiriak **idatzi edo izapidetzea** ezin dela inolako tasaren menpe egon, oro har plangintza izapidetzerakoan (baita plan partzialak izapidetzerakoan ere, plangintza xehatua izan eta eremu jakin batera mugatuta egon arren), interes orokorra baita nagusi, eta ez interes partikularra;





horrela, beraz, ez dago oinarririk hirigintzako zerbitzuengatik tasaren bat jarri ahal izateko.

Kasu honetan, gainera, igorritako likidazioa ez zegoen tasa arautzen duen inolako ordenantzetan funtsatuta, eta hori ezinbestekoa da era horretako zergak ezarri ahal izateko.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

16/2008 GOMENDIOA, uztailaren 10ekoa, Arraia-Maeztuko Udalari egina

Itzul dezala Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzari dagokion espedientea izapidetzearen ondoriozko zerbitzu sari profesionaleri, argitalpenei eta gainerako gastuei aurre egiteko interesdunek ordaindutako zenbatekoa, baita horri dagozkion interesak ere.

